



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

ELKATEAREN ESTATUTUAK

LEHEN KAPITULUA

1. artikulua: IZENA

"EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA" (EHME) ELKARTEAREN Estatutu hauek, G/5277/95 erregistro zk. dutenak eta 1995eko maiatzaren 8an inskribatuak, Euskadiko Elkarteei buruzko 7/2007 Legean, ekainaren 22koa, eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoan, martxoaren 22koa, ezarritakoari jarraiki aldatu dira, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

EHMERi Elkartearen gaineko aipaturako Legeen xedapenak, Estatutu hauek, baldin eta ez badaude Legearekin kontraesanean, bere gobernu-organoen legez hartzen dituzten erabakiak, baldin eta ez badira Legearen eta/edo Estatutuen kontrakoak, eta Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen erregelamenduzko xedapenak, hauek ordezkari izatera bakarrik izango badute ere, ezarriko zaizkio.

2. artikulua: ELKARTEAREN HELBURUAK

EHMERen helburuak honako hauek dira:

- Musika Eskola elkartuak orientatzea, euren irakaskuntza-jarduerarekin eta zentron kudeaketa zein antolakuntza administratiboarekin lotutako kontuetan.
- Euskal Herrian musika-irakaskuntza dinamizatzea.
- Musika-hezkuntza herritar guztion balio eta eskubide gisa sustatzea eta bultzatzea.
- Administrazio publikoaren eta instituzio zein erakunde publiko eta pribatuen aurrean kolektiboaren ordezkari izatea.
- Antzeko gaietan edo EHMERen gaien ildoan lan egiten duten beste hezkuntza edo kultura elkarte eta erakundeekin elkarlanean aritzea.

3. artikulua:

Helburuok lortzeko, honako jarduera hauek garatuko ditu:

- 1.- Sektoreko irakasleen prestakuntza eguneratzeko ikastaro, jardunaldi eta biltzarrak antolatzea.
- 2.- Eskola elkartuen hezkuntza programen, partituren, audio ekoizpenen, ikus-entzunezkoen eta IKTetik eratorritakoen edizioa, bai eta gertatu daitekeen merkaturatzea ere, erraztea.
- 3.- Oporretako stageetan Eskolek eman beharreko ikastaroak planifikatzea: Elkartearen musika talde enblematikoak sortu eta mantentzea, besteak beste, banda, orkestra sinfonikoa, abesbatza,...



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

- 4.- Musika Eskolen parte-hartzea eta hauek garatzen dituzten jardueren hedapena ahalbidetzen duten ekitaldi kolektiboak antolatzea.
- 5.- Dokumentu-fondoak sortzea: liburuak, partiturak, aldizkari espezializatuak, testuak, legeria, audioa, ikus-entzunezkoak eta IKTetatik eratorritakoak Musika Eskola elkartuen zerbitzura.
- 6.- Sektoreko lanpostu-eskaera bideratzeko irakasle-poltsa bat sortuko dugu, irakasleen bajak betetzeko, espezialitate berriak emateko, eta abar, zentroek poltsara jo dezaten.
- 7.- Musika Eskola elkartuen arteko komunikazioa koordinatzea, eta izaera orokorreko zein espezializatuko hedabideekin harreman-bideak ezartzea.
- 8.- Estatuko eta Europako beste Musika Eskolen Elkarteekin, bai eta beste erakundeekin ere, mantentzen dituen harremanetatik eratorritako jarduerak planifikatzeko eta gauzatzeko elkarlanean aritzea.
- 9.- Gure helburu eta estrategia berdinak dituzten beste kultura eta/edo hezkuntza elkarteek antolatutako jardueretan parte hartzea.
- 10.- Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura sailarekin elkarlanean aritzea, gonbidatzen gaituzten foro eta eremuetan.
- 11.- Ezarritako helburuak betetzen laguntzen duen beste edozein jarduera.

Goiko atalean deskribatu diren jarduerak eragotzi gabe, Elkarteak, bere helburu eta xedeak lortzeko hauxe egin dezake:

- Mota guztietako jarduera ekonomikoak aurrera eraman, Elkartearen helburuak lortze aldera edo helburuok lortu ahal izateko baliabideak batze aldera.
- Mota guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, edozein tituluren bidez; orobat, klase guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Era guztietako egintzak erabili, Legearen eta bere Estatutuen arabera.

4. artikulua: EGOITZA

Elkarte honen egoitza nagusia Getxon dago, Las Mercedes kaleko 6 zenbakian, Areetan.

Elkarteak Autonomia Erkidegoaren barruan beste lokal batzuk izan ditzake, baldin eta Batzar Nagusiak hori erabakitzen duenean.

5. artikulua: LURRALDE EREMUA

Elkartearen jarduerak eskuarki Euskal Herrian garatuko dira, Elkarteak beste lurraldeetan mantentzen dituen harreman eta hartu-emanen kalterik gabe.

6. artikulua: IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

Elkartea betirako eratzen da, eta Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera, Ezohiko Batzar Nagusiaren erabakiz edo Legeek aurreikusten dituzten arrazoen ondorioz bakarrik desegingo da.

Elkartearen barne-antolaketak eta jardunbideak demokratikoak izan behar dute, aniztasuna zeharo errespetatuz. Zuzenbide osoz deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen edozein alor aintzat hartzen ez duten edota Musika Eskola elkartuen autonomia errespetatzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta akordioak.

BIGARREN KAPITULUA

7. artikulua: GOBERNU-ORGANOAK ETA ADMINISTRAZIOA

Elkartearen gobernuaz eta administrazioaz kide anitzeko honako organo hauek arduratuko dira:

- Musika Eskola elkartuen Batzar Nagusia, organo goren gisa.
- Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza iraunkorreko kide anitzeko organo gisa.

8. artikulua: BATZAR NAGUSIA

Musika Eskola elkartuetako ordezkarien -bat eskola bakoitzeko- bilerak BATZAR NAGUSIA osatzen du, hots, Elkartearen organo goren eta subiranoa, non aipatutako ordezkari guztiek hitza eta botoa izango duten.

Batzar Nagusiaren ahalmenak honako hauek dira:

- a) Elkartearen jardunbiderako plan orokorra onestea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onestea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onestea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkarte desegitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideak hautatzea eta kargugabetzea, bai eta hauek gainbegiratzea eta kontrolatzea ere.
- g) Beste elkarte batzuekin federazioa edo konfederazioa osatzea, edo halakoren batetik ateratzea.
- h) Ondasun higiezin erabilera edo besterentzea onestea.
- i) Halakorik bada, gobernu-organoko kideen ordainsariak erabakitzea.
- j) Ohiko kuotak eta ezohiko kuotak zehaztea, nahiz eta Batzar Nagusiak ahalmen hori Zuzendaritza Batzordearen esku utz dezakeen, erabaki adieraziaren bidez.
- k) Elkartekideei elkarte behin betiko utzarazteko erabakia hartzea.
- l) Beste organo bati esleitu ez zaion beste edozein eskumen.

9. artikulua:



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

Batzar Nagusiak ohiko bilerak eta ezohiko bilerak egingo ditu.

10. artikulua:

Batzar Nagusia ohiko batzarraldian deitu beharko da, gutxienez urtean behin, lehen hiruhilekoaren barruan, 8. artikuluko a) eta b) puntuetan aurreikusitako Erabakiak hartzeko.

11. artikulua: Batzar Nagusia ezohiko batzarraldian bilduko da Zuzendaritza Batzordeak bere ekimenez hala erabakitzen duenean, edo Musika Eskola elkartuen %33ak hala eskatzen duenean, bileraren zergatiak eta xedea zehaztuz eta, nolnahi ere, honako gai hauek aztertzeko eta erabakitzeko:

- a) Estatutuen aldaketak.
- b) Elkarte desegitea.

12. artikulua: Batzar Nagusia biltzeko deialdiak idatziz egingo dira, eta bilerak egingo diren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez zazpi egun igaro beharko dira Batzarra lehen deialdian ospatzeko aukeratu den egunera arte.

BATZAR NAGUSIAREN lehen deialdian Eskola Elkartuetako ordezkarien herena bertaratzen ez bada, ordu erdi bat beranduago ospatuko da bigarren deialdian, bertaratu direnen kopurua edozein dela ere.

13. artikulua: Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratutako edo ordezkaturako pertsonen gehiengo soilez hartuko dira, aldeko botoak kontrakoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkaturaren gehiengo kualifikatua beharko da (aldeko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) honako erabaki hauek hartzeko:

- a) Elkarte desegitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabiltzea edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideen ordainsaria.

14. artikulua:

Eskola elkartuek beste edozein Eskola elkarturen esku utzi dezakete Batzar Nagusietara joateko ordezkariak. Ordezkaritza hori idatziz emango da, eta Batzarreko Idazkariak bere esku gorde beharko du, gutxienez bilera ospatu baino 24 ordu lehenago.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

15. artikulua:

Zuzendaritza Batzordea Elkartearen interesak kudeatzen eta ordezkatzeko dituen ordezkari-organoa da, Batzar Nagusiaren xedapen eta zuzentzauekin bat etorriaz. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa.

Kideak, gutxienez, hilean behin batzartu beharko dira ikasturtean zehar, bai eta Elkartearen jardueren burutze egokiak eskatzen duen guztietan ere.



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

Zuzendaritza Batzordeko kideak antolatutako bileretara 3 bider jarraian edo 5 bider aldizka ez agertzeak, hutsegitea arrazoitu gabe, dagokien kargutik kentzea ekarriko du.

16. artikulua:

Zuzendaritza Batzordea Lehendakariak, Lehendakariordeak, Idazkariak, Diruzainak, gutxienez, hiru kidek eta, gehienez, bost kidek osatzen dute.

17. artikulua:

Zuzendaritza Batzordea osatzen duten kargudunak Batzar Nagusiak hautatuko ditu 3 urteko agintaldietarako, eta behin eta berriro hautatu ahal izango dira.

18. artikulua:

Zuzendaritza Batzordean sartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibilen erabilera osoa izatea eta indarrean dagoen legedian ezartzen diren bateraezintasun-egoeretakoren batean ez egotea.
- b) Estatutuetan aurreikusten den moduan izendatua izatea.
- c) Musika Eskola elkartu batetako ordezkaria izatea, horretarako izendatua.

19. artikulua:

Behin Batzar Nagusiak elkartekidea hautatuta, hau Zuzendaritza Batzordeko kide bihurtuko da kargua onartzen duenean edo hartaz jabetzen denean.

Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeko kideei dietak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake, halakorik bada.

20. artikulua:

Zuzendaritza Batzordeko kideek kargua utziko dute hurrengo kasuetan:

- a) Agintaldia amaitzea.
- b) Dimisioa.
- c) Ordezkatzen duen Eskola borondatez Elkartetik banantzea.
- d) Ezgaitasun egoeran erortzea.
- e) Heriotza.
- f) Elkarteko kide den Eskolak ordezkaria aldatzea.
- g) Batzar Nagusiak erabakitako baliogabetzea.

Kargu-uztea a) puntuan azaldutako arrazoiaren ondorioz gertatzen denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek euren eginkizunetan jarraituko dute, harik eta lehenengo Batzar Nagusia ospatzean kargu berriak izendatzen diren arte.

Ordea, b), d), e), f) eta, halakorik bada, g) kasuetan, ordezkatutako Eskolak ordezkari berria izendatuko du.

Bestetik, c) eta, halakorik bada, g) kasuetan, ordea, Zuzendaritza Batzordeak berak beteko du hutsik gelditutako kargua, beste norbait behin-behineko izendatuz, baina izendapen hori Batzar Nagusira eraman beharko du, onetsi edo ezetsi dezan, eta azkeneko kasu horretan, bere izendapena egingo du.



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztiak Elkartearen Erregistroari jakinaraziko zaizkio.

21. artikulua:

Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak honako hauek dira:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Nagusiak emandako jarraibideen arabera, eta haren kontrolpean.
- b) Elkarteak aurrera eraman beharreko jarduerak programatzea.
- c) Batzar Nagusiari urteko gastu eta diru sarreraren aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera aurkeztea, haiek onartu ditzen.
- d) Batzar Nagusiaren bileretako Gai Zerrenda prestatzea, eta Batzar Nagusiaren ohiko nahiz ezohiko bileretarako dei egitea erabakitzea.
- e) Elkartekideek aurkezten dituzten proposamen edo iradokizunei erantzutea, horiei dagokienez, behar diren neurriak hartuz.
- f) Estatutu hauetan jasotzen diren manuak interpretatzea eta haien hutsuneak betetzea, betiere elkartearen arloan indarrean dagoen lege araudiaren menpe.
- g) Elkartekide berrien eskaerak onartzea edo, kasu bada, ukatzea.
- i) Batzar Nagusiak, erabaki adieraziaren bidez, ematen dizkion eskumenak egikaritzea, baldin eta ez badira batzarraren bakarreko eskumeneoak.

22. artikulua:

Zuzendaritza Batzordeak Lehendakariak bidezko deritzon guztietan ospatuko ditu bere bilerak, bai bere ekimenez, bai edozein kideren eskariz. Bileraren buru Lehendakariak jardungo du, eta bera ez badago, lehendakariordeak, halakorik balego, eta bietako inor ez badago, Batzordeko kide zaharrenak.

Batzarraren erabakiak baliozkoak izan daitezzen, bildutako botoen gehiengoaz hartu beharko dira, kideen erdia bertaratzea eskatuko delarik. Berdinketarik gertatuz gero, Lehendakariaren botoa kalitatekoa izango da.

Idazkariak bileretako akta egingo du, eta gero Akta Liburuan idatziko du.

PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARIA

23. artikulua:

Elkarteko Lehendakariak haren legezko ordezkariak bereganatzen du, eta Zuzendaritza Batzordeak nahiz Batzar Nagusiak hartutako erabakiak betearaziko ditu, bietan buru jardungo duelarik.

24. artikulua:

Lehendakariak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak egiten dituzten bileretara dei egitea eta haiek amaitutzat ematea, bietako eztabaidak zuzentzea, eta kalitateko botoaren bidez ebaztea, bozketetan berdinketarik gertatuz gero.
- b) Zuzendaritza Batzordeari Elkartearen jarduera plana proposatzea, bere zereginak bultzatuz eta zuzenduz.



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

- c) Balio osoz erabakitako ordainketak agintzea.
- d) Premiaz sor daitezkeen gaiak ebatzea, eta horren berri Zuzendaritza Batzordeari ematea egiten duen lehenengo bileran.
- e) Batzar Nagusiak, erabaki adieraziaren bidez, ematen dizkion eskumenak egikaritzea, Batzarraren bakarreko eskumenekoak badira izan ezik.

LEHENDAKARIORDEA

25. artikulua:

Lehendakariordeak bere gain hartuko ditu Lehendakariari laguntzeko eginkizunak, eta haren ordeztzekoak ere bai, bere karguan jarduteko aldi bateko ezintasun egoeran. Halaber, Lehendakariordeak berariaz berari eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak dagozkie.

IDAZKARIA

26. artikulua:

Idazkariari dagokio, zehazki, Elkartearen sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Elkartearen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, Elkartearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, Elkartearen dokumentazio ofiziala zainduz, Elkartearen Liburu eta artxiboen edukia ziurtatuz, eta Zuzendaritza Batzordearen izendapenari buruz eta elkartearen egoitza aldaketari buruz aginduzkoak diren jakinarazpenak agintari eskudunari helaraziz.

DIRUZAINA

27. artikulua:

Diruzainak diru-sarrera eta gastuen berri emango du, eta sarrera eta gastuen urteko aurrekontua prestatuko du, baita aurreko urteko kontuen egoera ere, Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar baitzikio, gero horrek, bere aldetik, Batzar Nagusira eraman ditzan, onartuak izateko.

HIRUGARREN KAPITULUA

ELKARTEKIDEAK: ONARPEN BETEKIZUNAK ETA PROZEDURA ETA ELKARTEKIDE MOTAK

28. artikulua:

Hezkuntza Saileko Musika Eskolen Erregistroan izena eman duten Musika Eskola guztiak sartu daitezke Elkartearen.

Sartzeko eskabideak idatziz egingo da, Elkartearen sartzeko Musika Eskolaren zuzendaritza organoaren oniritzia berretsiz.



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

Zuzendaritza Batzordeak, programatutako lehen bileran, eskabideak aztertuko ditu, eta Elkartean kide berrien sarrera baimentzea edo ukatzea erabakiko du. Ospatzen den hurrengo batzarrean, Zuzendaritza Batzordeak elkartekide berrien izenak jakinaraziko ditu.

Era berean, euren balioa, merezimenduak eta inguruabarrak direla eta, Batzarrak hainbat pertsona edo erakunde ohorezko elkartekide izendatzea erabaki dezake. Elkartekide horiek hitzarekin bai baina boto eskubiderik gabe geldituko dira, Estatutu hauetan xedatzen diren betebeharratik salbuetsita.

ELKARTEKIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

29. artikulua:

Musika Eskola bakoitzak ordezkari bat izateko eskubidea du, zeinak eskola Batzar Nagusietan ordezkatu duen.

Ordezkarri guztiek honako eskubide hauek dituzte:

- 1) Elkarteen Legearekin edo Estatutuekin bat ez datozen erabaki eta jokabideen aurka jotzeko eskubidea, egutegiko berrogei egunen buruan, aurkariak aurka egindako erabakiaren edukiaren berri jasoko zuen, edo jasotzeko aukera izango zuen, egunetik aurrera zenbatzen hasita.
- 2) **Elkartearen gobernu-organoen eta ordezkari organoen osakeraren, bere kontuen egoeraren eta bere jardueraren garapenaren berri jasotzeko eskubidea.**
- 3) Edozein unetan Elkarteko gainerako kideak zein diren jakiteko eskubidea, baita Elkartearen diru-sarrera eta gastuetako kontuen egoera eta bere jardura nola doan jakitekoa ere, izaera pertsonaleko datuen babeserako araudiak aurreikusten duenaren barnean.
- 4) Batzar Nagusietarako deialdia jasotzeko eskubidea, Batzar Nagusietara joateko eta bertan hitz egin eta botoa ematekoa; eta, horretarako, bere ordezkari beste kide batzuei eman diezaieke.
- 5) Estatutu hauekin bat etorriaz, Elkartearen zuzendaritza organoetan parte hartzeko eskubidea, kargu haietarako aldi berean hautesle eta hautagai izan daitekeelarik.
- 6) Indarrean dagoen legeriak aurreikusten duen Kideen fitxategian jasota egotekoa eta Elkartearen ikurra erabiltzeko eskubidea.
- 7) Estatutuen ale bat edukitzekoa, baita Barne Araudiarena ere, eta zuzendaritza organoetara eskaerak eta kexak aurkezteko eskubidea.
- 8) Diziplinako neurriak hartu aurretik, haiek hartzeko arrazoiak berri jasotzeko eskubidea eta bere iritzia idatziz ematekoa, neurriak hartzeko arrazoiak elkartekideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezkeelarik.

30. artikulua:

Elkartekideen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Elkartearen xedeak bere egitea eta horiek lortzen laguntzea.
- b) Estatutuen eta Batzarrak balio osoz hartutako erabakien arabera, elkartekide bakoitzari dagozkion kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetan xedatutakotik elkartekideari dagozkion gainerako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko gobernu-organoen balio osoz hartutako erabakiak ontzat hartzea eta betetzea.



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

ELKARTEKIDE-IZAERA GALTZEA

31. artikulua:

Musika Eskola elkartuaren izaera galduko da honako kasu hauetan:

1. Musika Eskola desegiteagatik.
2. Borondatezko banantzeagatik.
3. Zigortuta banantzeagatik, egoera hauetakoren bat gertatzen denean: Estatutu hauek ezarritako betebeharrak edota Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak balio osoz hartutako erabakiak behin eta berriz, modu larrian eta berariazkoan betetzen ez badira.

ZIGOR ARAUAK

32. artikulua:

Zuzendaritza Batzordeak zigorrak ezar diezazkieke elkartekideei, Estatutuak edota Batzar Nagusiaren nahiz Zuzendaritza Batzordearen erabakiak behin eta berriz urratzeagatik.

Eskubideak 15 egunetik hilabetera bitartean kentzetik hasi eta behin betiko banantzerainokoak izan daitezke zigorrak, hurrengo artikuluetan ikusiko den moduan.

Horretarako, Lehendakaritzak erabaki dezake ikerketa bat egin dadin zigortzeko modukoak izan daitezkeen jokabideak argitzearren. Jardunbideak Idazkaritzak eramango ditu aurrera, eta berak, organo instruktore gisa, proposatuko dio Zuzendaritza Batzordeari neurri egokiak har daitezela.

33. artikulua:

Elkartekideren batek elkartetik banandua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, Estatutu hauek ezarritako betebeharrak edota Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak balio osoz hartutako erabakiak behin eta berriz, modu larrian eta berariazkoan ez betetzeagatik; Lehendakaritzak Idazkaritzari agindu diezaioke aurreko dilijentziak egin ditzan, informazio egokia lortzearren, eta hori ikusita, Lehendakaritzak agindu dezake jardunbideak artxibatzeke, edota banantze espediente zigortzailea irekitzeko.

Zigorrak ezartzea Zuzendaritza Batzordearen ahalmena izango da, Idazkariaren parte-hartzerik gabe (organon instruktorea delako), baina alde aurretik interesatuari entzun egin beharko zaio. Beti arrazoitua izango den erabaki horren aurka errekurtsioa aurkez daiteke Batzar Nagusian.

34. artikulua:

Banantze espediente zigortzailea irekitzen bada, Idazkariak, gertaerak egiaztatu ondoren, idatzi bat helaraziko dio interesatuari, egozten zaizkion karguak adierazteko, eta kargu horiei erantzun egin diezaietke, bere alde egokituz jotzen duena alegatuz, hamabost egunen buruan, eta horiek igarota, nolahi ere, gai hau Zuzendaritza Batzordearen lehen bilerako Gai Zerrendan sartuko da, eta batzordeak bidezkoa dena erabakiko du. Bozketan ez du parte hartuko espedienteko instruktorea izan den Idazkariak.

Banantzeko erabakiaren berri eman behar zaio Eskola interesatuari, eta jakinaraziko zaio erabakiaren aurka errekurtsioa aurkez dezakeela ospatzen den lehen ezohiko Batzar Nagusian, eta



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

hiru hilabeteren barruan deialdirik egiten ez bada, horretarako bakarrik egin beharko dela. Zuzendaritza Batzordeak, bien bitartean, errunduntzat jotakoari elkartekide gisa dituen eskubideak kentzea erabaki dezake, eta Zuzendaritza Batzordeko kide izango balitz, bere kargutik kentzea erabaki beharko luke.

Baldin eta banantze espedientea Batzar Nagusira eramaten bada, Idazkariak haren laburpena idatziko du, hartara, erruduntzat jotakoak aurkeztutako idatziaren berri eman ahal diezaion Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiar, eta gertaeren berri behar bezala eman, Batzarrak dagokion erabakia har dezan.

35. artikulua:

Beti arrazoituta egongo den banantzeko erabakiaren berri elkartekideari eman beharko zaio, eta honek errekurtsioa aurkez dezake Epaitegietan bere eskubidea erabiliz, baldin eta, bere iritziz, erabaki hori Legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

36. artikulua:

Eskola elkartu bati Elkartetik banantzearen berri ematen zaionean, borondatezko banantzea izan edo zigorraren ondoriozkoa izan, hala badagokio, Elkartearekin bete gabe eduki litzakeen betebeharrak bete ditzan eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORRERAKO ONDAREA ETA AURREKONTU ARAUAK

37. artikulua:

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak merkataritza-izaerarik edota elkartekideentzako irabazi asmorik ez duenez, hasierako ondarrerik gabe eratzen da.

Bere helburuak betetzeko honako baliabide ekonomiko hauek izango ditu:

- a) Elkartekideen ekarpenak, Batzarrean erabakitzen den moduan.
- b) Bere ondasun eta eskubideen emaitzak, baita legez eskura ditzakeen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak ere.
- c) Zuzendaritza Batzordeak onartzen dituen bidezko jardueren bitartez, Estatutuetako helburuen barruan, betiere, Elkarteak eskuratzen dituen diru-sarrerak.

Elkartearen ekitaldi ekonomikoa urte batekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Elkarteak jarduera ekonomikoak –zerbitzu-emateak barne– egitearen ondorioz lortzen dituen mozkinak Elkartearen xedeak betetzeko bakarrik erabili behar dira. Mozkinak elkartearen helburuak betetzeko bakarrik erabiliko dira, eta ezin izango dira inola ere banatu; orobat, mozkinok ezin zaizkie doan laga irabazi-asmoa duten pertsona fisikoei edo juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

38. artikulua:



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

Estatutuen aldaketa berariaz horretarako deitu den elkartekideen ezohiko Batzar Nagusian erabaki beharko da. Zuzendaritza Batzordeak hiru elkartekidez osatutako Batzorde Txostengile bat izendatuko du aldaketa proiektua idatzi dezan. Proiektu hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta Batzorde berak jarriko du proiektua amaitzeko epea.

39. artikulua:

Behin aldaketa proiektua aipatutako epearen barruan idatzita, Lehendakariak ospatzen den lehen Zuzendaritza Batzordeko Gai Zerrendan sartuko du, eta honek ontzat emango du edo, hala badagokio, Batzorde Txostengileari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Txostena ontzat ematen bada, Zuzendaritza Batzordeak ospatzen den hurrengo Batzar Nagusian sartzea erabakiko du, edo bestela Batzarra horretarako deitzea erabakiko du.

40. artikulua:

Batzarrerako deialdiarekin batera Estatutuen aldaketa xedatzen duen testua bidaliko da, elkartekideek egokitzat jotzen dituzten zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ditzaten. Zuzenketa horiek Batzar Nagusiari helaraziko zaizkio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Nagusiak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta erabaki honek Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTEAREN ONDAREA BALIATZEA

41. artikulua:

Elkartea desegingo da:

1. Elkartekideen borondatez, horretarako deitutako ezohiko Batzar Nagusian adieraziko dena.
2. Beste elkarte batek xurgatzea edo beste elkarte batzuekin bat egitea.
3. Elkartea desegitea erabakitzen duen ebazpen judizial irmoa.
4. Elkartearen xedeak betetzeko ezintasuna.

42. artikulua:

Elkartea desegiten bada, erabaki hori hartu duen Ezohiko Batzar Nagusiak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du, Zuzendaritza Batzordeko 3 kidek osatua, eta Batzorde hori arduratuko da gelditzen diren fondoez.

Elkartekideekin eta hirugarrenekin lituzketen betebeharrak bete ondoren soberan legokeen ondarea, halakorik balego, Elkartearen dauden Musika Eskola guztien artean banatuko da.

AMAIERAKO XEDAPENA



EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA "EHME"

Batzar Nagusiak Barne Araudi bat onartu ahal izango du Estatutu hauek garatzeko, baina araudi horrek ezingo ditu inola ere hemen hitzartutakoak inola ere aldatu.